

## Eskubaloia

BIDASOAK ADEMAR LEONEN KONTRA JOKATUKO DU GAUR KOPAKO FINAL-LAURDENETAN

## Burua Errekopan dutela

Asobal Ligako lehen itzuliko zortzi talde onenak ariko dira lehia gaurtik igandera bitartean Castellon, Kopako XXI. ekitaldian. Elgorriaga Bidasoak titulua eskuratu zuen iaz, baina Kopa honetara ez da momenturik onenean iritsi, Errekopan baitute burua.


Pello Aiestaran / Donostia

ELGORRIAGA BIDASOAK Ademar Leon taldearen kontra hasiko du gaur Kopako titularen defentsa (Castello, 21:00). Juantxo Villarrealen mutilek iaz bigarren aldiz irabazi zuten titulu hau, Leonen, Barcelonari 21-20 irabazita. Horri esker ari dira aurten Errekopan. Beharbada, txapelketa hau ez da momenturik onenean iritsi Bidasoarentzat. Izan ere, partidu asko jokatu behar izan ditu Irungo taldeak azkenaldian, Ligan eta Errekopan, eta baliteke azkenean nekea nabaritzea. Gainera, Errekopako finala ere datorren astean hasiko da, eta Kopa oso garrantzitsua izan arren, kontzentrazio maila ez da berdina izango.

Kopan ez du bide errazik izango Bidasoak. Hasteko, final-laurdenetan Ademar Leon bikainaren aurka jokatu beharko du. Ademar Leon izan da, Barcelonarekin batera, Asobal Ligako talderik onena, eta azkenean merezimendu osoz eskuratu du bigarren postua. Barcelonak Europako Kopa irabazten badu —finala jokatu du Badel Zagreben aurka—, datorren denboraldian Europako Kopan ariko da Ademar Leon ere, kataluniarrekin batera. Dena den, ez da hori Manolo Cadenasek eta bere mutilek momentu honetan buruan dutena. Denboraldia biribildu nahi dute Kopa irabazita, eta, egia esan, badute horretarako aukera, sasoi betean iritsi baitira. Manolo Cadenasek berak dioenez, «Bidasoak baino atsedean gehiago hartu ahal izan dugu azkenaldian, eta denboraldiaren garai honetan atsedean garrantzi izugarria hartzen du, batez ere lau egunetan hiru partidu jokatu behar direnean».

Iritzi berrekoa da Juantxo Villarreal ere, baina horrek ez du esan nahi Kopan aurrera jarraitzeko aukerari uko egingo dionik. Bidasoak Jordi Nuñez, Angel Fernandez eta David Rodriguez gabe jokatu du —Gurutx Aginagalde eta Santi Barcenilla lehen taldearekin joan dira—, baina, hala ere, ahaleginak egingo dituzte lan ona egiteko. Txokolateroak badakite gal dezaketela, baina baita partidu batera edozein menderatzeko gai direla. Faborito nagusiak ez izateak presioa kenduko die, eta horixe izango da, hain zuzen ere, beren armarik onena.

**Ademar Leon gaituz gero, Barcelona finalerdietan** • Gaur final-laurdenetan Ademar Leon gaituzten badu, Elgorriaga Bidasoak Barcelona izango du aurkari finalerdietan. Aurkari gaizto batetik aurkari gaiztoago-



Bidasoak baja garrantzitsuak dituela jokatu du gaur Ademar Leonen aurka.

EDURNE KOCH

ra. Ziurtzat jotzen dugu Barcelonak final-laurdenak gaituztuko dituela. Egia da Valero Riveraren mutilek partidu gogorra jokatu beharko dutela, Valladoliden aurka, baina hainbesteko nagusitasuna dute eze, ateratzen diren txapelketa guztietan faborito argiak dira. Gainera, bi denboraldi daramatza Barcelonak Kopa eskuratu gabe, eta buru-belarri aritu dira azkenaldian txapelketa hau prestatzen. Hori da Barcelonaren handitasuna: dena irabazi arren, gehiago nahi dute, eta ez dira izpirik ere lasaitzen.

«Kopa irabazteko gogo handia daukagu. orain, erabat kontzentratu gaude txapelketa honetan, eta inork ez du pentsatzen Europako Kopan», dio Valero Riverak. Asobal Kopan huts egin zuen Barcelonak —Ademar Leonen aurka galdu zuen finalerdietan—, eta ez du bigarren hutsik nahi.

Final-laurdenetako beste bi final-laurdenei dagokionez, Pilotes Posada eta Cadagua Galdarrek jokatu dutena da interesgarriena. Faborito argirik ez dago, biek ere antzeko potentziala bai-

tute. Beharbada, galiziarren jokoak segurtasun gehiago ematen du horrelako partiduetan, baina Cadaguak erasoan dakien bezala asmatzen badu, garaipena eskura edukiko du.

Azkenik, Caja Cantabria faborito da Ciudad Realen kontra. Kantabriarrek oso denboraldi irregularra daramate, eta Kopa beren lana txukuntzeko azken aukera da. Ciudad Realentzat, berriz, Kopa jokatzeko helburu bat da berez. Hortik aurrera lortzen duen guztia, sari bat izango da. X

## Txirrindularitza

## Balentziagaren Memoriale igandean

Berrehun txirrindulari eta 168 kilometroko ibilbide gogorra izango ditu probak

Xabier Usabiaga / Eibar

GOIZEKO 8:40etan Eibarko Untzaga Enparantzatik aterako da Balentziagaren XXVI. Memoriale. Euskal Herriko klasikorik onenak betiko ildo arrakastatsuari eutsi dio ibilbidean nahiz partaidetzan, atzo Eibarko Portalea kultur etxean Eibarko Txirrindulari Elkarteak aditzera eman zuenez.

168 kilometroko ibilbide gogorrean bost mendate gaituztuko dira; Itziar, Ixua, Trabakua, Elgeta eta Areitio. Iazkoak baino bederatzik kilometro eta mendate bat gutxiago izango ditu aurtengoak. Hala ere, funtsean betiko ibilbidea izango du; lehenbiziko erdian Itziar bakarrik igoko da, hirugarren mailako mendatea, eta bigarren zati gogorrari Ixua emango dio hasiera, hain zuzen, ibilbide erdian dagoen lehen mailako mendate bakarrak. Azken 84 kilometroetan hiru mendate igoko dira: Trabakua 104. kilometroan; Elgeta 134. kilometroan; eta Areitio helmugarako sei kilometro falta direnean.

Partaidetza, proba klasikoakenez, gonbidapen bidez lortu dute antolatzaileek, eta ondorioz bikaina izaten jarraituko du. 25 talde aterako dira, eta horietatik 12 izango dira euskal taldeak: Banesto, Kaiku, Iberdrola, Aguilar, Baque, Olarra, Banaka, Lekeitialde, Caja Rural, ACR, Telco eta Saunier. X

## Datorren urteko Tourra Irlandan hasiko da

Agentziak / Paris

DATORREN URTEKO Frantziako Tourra Irlandan hasiko da, lasterketa antolatzen duen elkarteak atzo eguerdian jakinarazi zuenez. Jean Marie Leblanc Frantziako Tourreko Elkarteak zuzendar nagusiak eta Enda Kennu Irlandako Merkataritza eta Turismo ministroak gaur bertan sinatuko dute bien artean lortutako akordioa.

Hori izango da aurreneko aldia Tourraren sarrera kontinentetik kanpo egingo dena lasterketa hamabi bidetara abiatu bada ere Frantziako Estatuak mugetatik kanpo Tourreko antolatzaileak aspaldixe iragarri zuten aurtengo edizioa Frantziatik aparte hasiko zela, Munduko Futbol Txapelketaekin topa ez egitearren. Aurreneko etaparen uztailaren 12an korrituko da, justu Mundialetako finalaren egunean bertan. Finala goa bezperan izango da. X